

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURAREN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 7an hartutako erabakiaren laburpena: kultur proiektu, ekitaldi eta sendotutako jaialdietarako diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 496137

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Diru-laguntzen ildo bakoitzaren berariazko oinarrietan zehazten diren helburuak betetzen dituzten programak edo jarduerak sustatzeko edo egiteko interesa duten pertsona fisikoa edo juridikoez eskatu ahalko dute diru-laguntza emateko, baldin eta haien jarduera esparrua Gasteizko udalerrian badute. Pertsona eta entitate eskatzaileek Arabako Lurralde Historikoan izan beharko dute helbidea.

Orobat, onuradun izaera eskuratu ahalko dute pertsona fisiko edo juridikoen elkarte publiko edo pribatuak, ondasun komunitateak, edo beste edozelako ekonomi unitate edo ondare bereizik, nortasun juridiko propiorik izan gabe ere, diru-laguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak garatu eta gauzatuko gaitasuna badute.

Bigarrena. Xedea

Laguntza-deialdi honen helburua hiriko kultur eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kulturaren arloko sustapen-, sorkuntza-, prestakuntza- eta zabalkunde-ekimenetan laguntzea da.

Diru-laguntza jasoko duten proiektu kulturelek irekiak izan beharko dute, oso-osorik Gasteizen garatu eta gauzatu beharko dira, eta Gasteizko herritar guztiei zuzendutakoak izan beharko dute; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programa, ekitaldi eta jaialdiei jarraipena eman, eta kulturaren arloetakoren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 7an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

200.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura. Entitate bakoitzak eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du proiekturako zenbatetsitako aurrekontu osoaren ehuneko 70 gaindituko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun baliodun, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Sailaren zinegotzi ordezkaria
FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS